## UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

## 2015eko OTSAILAK 24 / 24 - FEBRERO – 2015

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2015/02/24

**HASIERA / INICIO:** 17:00ETAN

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarrizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiolagarai jauna

Don José María Andrés Ibañez de Garaio jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)**
Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE)**
Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Doña Idoia Agorría Martínez andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)**
Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)**
Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA**
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2015EKO URTARRILAREN 27KO OHIKOA.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR, CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 27 DE ENERO DE 2015.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2015eko urtarrilaren 27ko ohikoa hain zuzen ere.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 27 de Enero de 2015.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2015eko urtarrilaren 27**ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **27 de Enero de 2015.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

- ✓ **JOSÉ MARÍA ANDRÉS IBAÑEZ DE GARAIO JAUNA (EAJ/PNV) IZENDATZEA ZENBAIT ARGIBIDE BATZORDETAKO KIDE.**
- ✓ **OROBAT. ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZA-BATZORDEEI ETA ENPRESA PUBLIKOAK DAGOKIENEZ.**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

- ✓ **NOMBRAMIENTO DE DON JOSÉ MARÍA ANDRÉS IBAÑEZ DE GARAIO (EAJ/PNV) COMO MIEMBRO DE DETERMINADAS COMISIONES INFORMATIVAS.**
- ✓ **IDEM. IDEM. IDEM. DE LAS JUNTAS RECTORAS DE ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y EMPRESAS PÚBLICAS.**

Aitziber Irigoras Alberdi andreak, Durangoko udaleko EAJ/PNVren izenean (Sarrera Erregistroa: 2015000918: 2015eko otsailaren 4koa), Jose Maria Andres Ibañez de Garaioren izendapena, kide eta ordezkari moduan, proposatzen du ondoren aipatzen diren batzordeetan:

Doña Aitziber Irigoras Alberdi, en nombre y representación de EAJ/PNV del Ayuntamiento de Durango (Registro de Entrada nº 2015000918 de 4 de Febrero de 2015), comunica la asistencia de Don José María Andrés Ibañez de Garaio como miembro y representante del partido EAJ/PNV en:

**Udal batzorde informatiboak**:

- ✓ Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza batzordea.
- ✓ Gazteria eta Kiroletako batzordea.
- ✓ Berdintasun batzordea.
- ✓ Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Inmigrazio batzordea.
- ✓ Garapen Iraunkorra eta Herritarren Partaidetza batzordea.

**Erakunde Autonomoetako Zuzendaritza Batzordeak:**

- ✓ Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Erdi Mailako Kontserbatorioa.
- ✓ Udal Euskaltegia.

**Enpresa Publikoak:**

- ✓ Landako Erakustazoka.
- ✓ Durango Eraikitzen.

**Comisiones informativas municipales**:

- ✓ Comisión informativa de Urbanismo, Obras y Vivienda.
- ✓ Comisión informativa de Juventud y Deportes.
- ✓ Comisión informativa de Igualdad.
- ✓ Comisión informativa de Acción Social, Cooperación e Inmigración.
- ✓ Comisión informativa de Desarrollo Sostenible y Participación Ciudadana.

**Juntas Rectoras de Organismos Autónomos:**

- ✓ Escuela de Música y Conservatorio de Grado medio "Bartolome Ertzilla".
- ✓ Euskaltegi Municipal.

**Empresas Públicas:**

- ✓ Landako Erakustazoka.
- ✓ Durango Eraikitzen.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna (EAJ-PNV) izendatzen da zenbait argibide Batzordetako kide eta, gauza bera, Erakunde Autonomoetako zuzendaritza Batzordeei dagokienez. Dokumentazioan daukazuen moduan, Udal Batzorde informatibo hauetan parte hartuko du Jose Maria Andresek:

- Hirigintza, Obrak eta Etxebizitza.
- Gazteria eta Kirolak.
- Berdintasuna.
- Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Immigrazioa.
- Garapen Iraunkorra eta Herritarren Partaidetza.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Se nombra a D. Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna (EAJ-PNV) como miembro de varias Comisiones Informativas, así como de las Juntas de Gobierno de los Organismos Autónomos. Tal y como lo recoge la documentación que os ha sido enviada, Jose Maria Andres tomará parte en las siguientes Comisiones:

- Urbanismo, Obras y Vivienda.
- Juventud y Deporte.
- Igualdad.
- Acción social, Cooperación e Inmigración.
- Desarrollo Sostenible y Participación Ciudadana.

Erakunde autonomoetako zuzendaritza batzordeei dagokionez, parte hartuko du:

- Bartolome Ertzilla Musika Eskola erdi mailako Kontserbatorioan.
- Udal Euskaltegian.

Enpresa publikoen alorrean:

- Landako Erakustazokan.
- Durango Eraikitzen.

Ogasun, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordeak egin zuten moduan 2015eko otsailaren 16ko batzordean.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

En cuanto a las juntas rectoras de los OO.AA participará en las que siguen:

- Escuela de Música y Conservatorio de Grado Medio Bartolome Ertzilla.
- Euskaltegi municipal.

Empresas públicas:

- Landako Erakustazoka.
- Durango Eraikitzen.

Como anteriormente lo hiciera la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión de 16 de Febrero de 2015.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- JOSE MARIA ANDRES IBAÑEZ DE GARAIO JAUNAREN (EAJ/PNV) IZENDAPENA ORGANO KOLEGIATUETAN UDALEKO ORDEZKARI BEZALA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2015EKO OTSAILAREN 16KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordearen irizpena, 2015eko otsailaren 16koa, eta honako hau dioena:

*"2015eko urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jaunak zinegotzi kargu berriaz jabetu zen Natxo Martinez Orea zinegotziaren heriotzaren ondoren; Aitziber Irigoras Alberdi andreak, Durangoko udaleko EAJ/PNVren izenean, zinegotzi berriaren ordezkaritza proposatzen du ondoren aipatzen diren Gobernu Organoetan:*

- ✓ *Frai Juan Zumarraga institutuaren Eskola Kontseiluan.*
- ✓ *Bilbao-Bizkaia Ur partzuergoan.*

**TRES.- NOMBRAMIENTO DE DON JOSÉ MARÍA ANDRÉS IBAÑEZ DE GARAIO (EAJ/PNV) COMO REPRESENTANTE DE LA CORPORACIÓN EN ÓRGANOS COLEGIADOS. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 16 DE FEBRERO DE 2015).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión de 16 de Febrero de 2015, del tenor literal siguiente:

*"Doña Aitziber Irigoras Alberdi, en nombre y representación de EAJ/PNV del Ayuntamiento de Durango, y una vez tomado posesión en sesión plenaria de 27 de enero de 2015 el nuevo concejal Don José María Andres Ibañez de Garaio, como consecuencia del fallecimiento del Concejal Natxo Martinez Orea; propone su nombramiento como representante de la Corporación en los siguientes Órganos de Gobierno:*

- ✓ *En el Consejo Escolar de Fray Juan de Zumarraga Instituoa.*
- ✓ *En el Consorcio de aguas Bilbao-Bizkaia.*

✓ *Durangoko amankomunazgoan.*

*Presidenteak aipatutako proposamenaren bozketa egiten du hurrengo emaitzekin:*

- *Alde: 4, PNV (3) eta PP (1).*
- *Kontra: 0.*
- *Abstentzioak: 4, BILDU (1), PSE-EE (PSOE) (2) eta ARALAR (1).*

*Jose Maria Andres Ibañez de Garaioren (EAJ/PNV) izendapen proposamena aipatutako organoetan Osoko Bilkurara eramango da."*

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Proposamena Ogasun batzordean egin nuen nik neuk. Gure proposamena, EAJren izenean, da Jose Mari Andresek betetzea Natxok betetzen zituen karguak, hain zuzen ere, Frai Juan Zumarraga Institutuko eskola kontseiluan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan eta Durangoko Amankomunazgoan. Eta hau da hona dakargun proposamena eta irizpena. Ez badugu txandarik aurreikusten bozkatu egingo dugu zuzenean.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko proposamena.

✓ *En la Mancomunidad de la Merindad de Durango*

*La Presidenta pone a votación la propuesta dando el siguiente resultado:*

- *Votos a favor: 4 PNV (3) y PP (1).*
- *Votos en contra: 0.*
- *Abstenciones: 4: BILDU (1), PSE-EE (PSOE) (2) y ARALAR (1).*

*Elevándose al Pleno de la Corporación propuesta de nombramiento de Don José María Andres Ibañez de Garaio (EAJ/PNV), como representante del Ayuntamiento en los órganos citados."*

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: La propuesta la realicé en la Comisión de Hacienda. Esto es, en nombre del PNV, propongo que Jose Maria Andres ocupe los cargos que ocupaba Natxo, es decir, en el consejo escolar del Instituto Frai Juan Zumarraga, en el Consorcio de Aguas y en la Mancomunidad de Durango. Y lo traigo como propuesta y como dictamen. En caso de que no haya intervenciones pasaremos a votar directamente.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, **APRUEBA** la propuesta anteriormente transcrita.

**LAU.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO ESTATUEN ALDAKETA-PROPOSAMENA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2015EKO OTSAILAREN 16KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordearen irizpena, 2015eko otsailaren 16koa, eta honako hau dioena:

**CUATRO.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DEL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 16 DE FEBRERO DE 2015).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión de 16 de Febrero de 2015, del tenor literal siguiente:

*"Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko Batzar Orokorrak, 2014ko azaroaren 5eko ezohiko batzordean, hartutako akordioa bidali du, erakundearen estatutuen aldaketarako onarpenezkoa. Akordioa jendaurrean egon da (BAO, 2014ko azaroaren 7koa) eta orain Durangoko udalera, dator partzuergoko kide bezala, bere onarpenerako. Akordioaren testua hurrengo hau da:*

***BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA HASIERAN ONARTZEA,***

*Partzuergoatea Batzar Nagusiak, 2014ko azaroaren 5ean egindako ezohiko bileran, honako erabaki hau hartu zuen:*

*Idazkariak azaldu du aldaketa hau egin dela Partzuergoak Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legean nahiz Sektore Publikoaren Arrazionalizazio eta Administrazioaren Erreformarako beste neurri batzuei buruzko 15/2014 Legean xedatutakora egokitzeko betebeharra duelako.*

*Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legea 2013ko abenduaren 30eko BOEn argitaratu zen, eta biharamunean sartu zen indarrean, abenduaren 31n, alegia.*

*Legeko seigarren xedapen iraunkorrean ezarririk dago Legea indarrean sartu aurretik eratuta zeuden partzuergoek estatutuak lege horretan xedatutakora egikitu beharko dituztela, urtebeteko epean, Legea indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.*

*Bestalde, azken xedapenetako bigarrenean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legea aldatu, eta xedapen gehigarri berri bat sartzen du, hogeigarrena, partzuergoen araubide juridikoa oso bestelako moduan arautzen duena, orain arteko araubidearekin erkatuta; izan ere, beraiek osatzen dituzten administrazioetako bati atxiki behar zaizkio partzuergoak. Legeak, hurren, zein administraziori atxiki behar zaion zehazteko jarraitu beharreko irizpideak ezartzen ditu, eta Partzuergo ho-*

*"El Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia remite acuerdo adoptado por la Asamblea General del Consorcio de sesión extraordinaria del 5 de noviembre de 2014, aprobatorio de la modificación de los Estatutos de la Entidad. Acuerdo que ha sido sometido a información pública (BOE de 7 de noviembre de 2014) y que ahora someten al Ayuntamiento de Durango, como entidad consorciada para su aprobación y cuyo texto literal es el siguiente:*

***APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DEL CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO-BIZKAIA.***

*La Asamblea General del Consorcio, en sesión extraordinaria celebrada el día 5 de noviembre de 2014, adoptó el siguiente acuerdo:*

*Expone la Secretaria que esta modificación responde a la obligación que tiene el Consorcio de adaptarse a lo previsto en la Ley 27/2013, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local y en la Ley 15/2014, de Racionalización del Sector Público y otras medidas de reforma administrativa.*

*La Ley 27/2013 de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local fue publicada en el BOE del día 30 de diciembre de 2013, entrando en vigor el día siguiente, 31 de diciembre.*

*La Disposición transitoria sexta de la Ley determina que los consorcios que ya estuvieran creados en el momento de la entrada en vigor de la Ley deberán adaptar sus estatutos a lo en ella previsto en el plazo de un año desde su entrada en vigor,*

*Por su parte, la Disposición final segunda modifica la Ley 30/1992, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común, e incluye una nueva disposición adicional, la vigésima, que regula el régimen jurídico de los consorcios de forma sustancialmente distinta a la existente hasta ahora, estableciendo su necesaria adscripción a una de las administraciones que los integran. La Ley establece a continuación los criterios que deben seguirse para deter-*

*nen kasuan, hain zuzen, irizpideok aplikatuz, Bizkaiko Foru Aldundia da administrazio hori. Atxikipena partzuergo bakoitzaren estatutuetan jaso behar da, eta, horretarako, 1. artikuluan paragrafo berria gehitzeko proposatzen da, 4.a.*

*Proposatzen den beste egokitzapena Sektore Publikoaren Arrazionalizazioari buruzko 15/2014 Legeak eragiten du (2014ko irailaren 17ko BOEn argitaratua eta biharamunetik indarrean); hain zuzen ere, II. kapituluko atal bat partzuergoei buruzkoa da, eta 12, artikulutik 14. artikulura bitartean partzuergotik banantzeko eskubidea eta partzuergoaren likidazioa arautzen dira.*

*Bestalde, 15. artikuluko bigarren puntuan ezarririk dago Legea indarrean sartu aurretik eratuta zeuden partzuergoek estatutuak lege horretan xedatutakora egokitu beharko dituztela, sei hilabeteko epean, Legea indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.*

*Azken hori da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kasua; hain zuzen ere, haren estatutuetako 42. eta 43. artikuluetan udalerrien banantzea jasotzen da, eta 45. eta 46. artikuluetan, partzuergoaren desegitea.*

*Borondatez banantzeko eskubideari buruz estatutuetako 42.2 artikuluan xedaturik dagoena kontraesanean dago Legeko 13.1 artikuluan xedaturikoarekin, eta aldatu eta lege horretara egokitu behar da.*

*Estatutuetako gainerako arauek ez dute kontrakotasunik edo kontraesanik agertzen Legearen aurrean; dena dela, ez dira hain zehatzak eta, horregatik, 15/2014 Legean xedatutakoari zein aplikatzekoa den gainerako legediari lotzeko berariazko aipamena proposatzen da, banantzeari zein partzuergoaren desegiteari dagokienez.*

*Hori lela eta, 42. artikuluko bigarren paragrafoa aldatzeko proposatzen da, eta 46. artikuluan, hau da, Partzuergoa desegiteko prozedura arautzen duen artikuluan, paragrafo berri bat sartzeko, bosgarrena.*

*minar cuál es la administración de adscripción, que en el caso de este consorcio y en aplicación de los mismos resulta ser la Diputación Foral de Bizkaia. Esta adscripción se tiene que contemplar en los estatutos de cada consorcio, y para ello se propone añadir un apartado nuevo al Artículo 1, el 4.*

*La otra adaptación que se propone viene motivada por la Ley 15/2014, de Racionalización del Sector Público, publicada en el BOB del día 17 de septiembre de 2014 y en vigor desde el día siguiente, que dedica una sección del capítulo II a los consorcios, regulando sus artículos 12 a 14 el derecho de separación y la liquidación del consorcio.*

*El artículo 15, por su parte, establece en su punto segundo que los consorcios que ya estuvieran creados en el momento de la entrada en vigor de esta Ley deberán adaptar sus estatutos a lo en ella previsto en el plazo de seis meses desde su entrada en vigor.*

*Este es el caso del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia, cuyos estatutos contemplan en los artículos 42 y 43 la separación de municipios y en los artículos 45 y 46 la disolución del consorcio.*

*Lo dispuesto en el artículo 42.2 de los estatutos respecto al derecho de separación voluntaria se contradice con lo dispuesto en el artículo 13.1. de la Ley y debe ser modificado y adaptado a la misma.*

*El resto de la regulación estatutaria ni se opone ni contradice a la legal, si bien es menos detallada que esta última, por lo que se propone introducir una remisión expresa a lo dispuesto en la Ley IS/20014 y demás legislación aplicable, tanto en lo referente a la separación como a la disolución del Consorcio.*

*Por ello, se propone la modificación del apartado segundo del artículo 42 y la inclusión de un nuevo apartado, el quinto, en el artículo 46, regulador del procedimiento a seguir en la disolución del Consorcio.*

*Azkenik, komeniko litzateke estatutuen aldaketaz baliatzea 1.1 artikuluan gaur egun Partzuergoko eskubide osoko kide diren udalerrien zerrenda (80) emateko, dagoneko aipatuta daudenez gain, 2005. urtean estatutuak azken aldiz eguneratu ondoren Partzuergoan sartu direnak ere gehiturik.*

*Aldaketaren izapidetzeari dagokionez, estatutuetako 44. artikuluak eta Bizkaiko Udalez Gaindiko Eremuko Erakundeak Araupetzeari buruzko martxoaren 30eko 3/95 Foro. Arauak zehazten dute izapidetze hori.*

*Lehenik, Batzar Nagusiaren hasierako onarpena, batzarra ezohiko bilkuran bilduta eta legezko gehiengo osoaren quorumarekin, gaur egiten ari den izapidea, alegia. Boto-kopuruaren gehiengo osoa 279koa da.*

*Bigarrenik, hasiera batean onarturiko aldaketa jendaurrean jarri behar da hogeita hamar egun baliodunez, alegazioak aurkezteko. Era berean, erabakia Bizkaiko Foru Aldundiari igorri behar zaio, aipatutako foro-arauko 27.2 artikuluan aurreikusita dagoen nahitaezko txostena eman dezan.*

*Hasiera batean onartzeka erabakia behin betiko hartutzat joko da, ezarritako epea igarotakoan erreklamaziotik aurkeztu ez bada. Bestela, Batzar Nagusiak erreklamazioen gainean ebatziko du, behin betiko onartu baino lehen.*

*Azkenik, estatutuen aldaketa onartzeko erabakia, behin betikoa denean, Partzuergoa eratzen duten erakunde guztiei jakinaraziko zaie -Udalei, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari- haietako bakoitzak onar dezan, zeinek bere legediarekin bat etorriz. Partzuergoko kide diren erakundeen gehiengoak onartzea aski izango da estatutuen aldaketa behin betiko onartutzat jotzeko. Behin onartuz gero, estatutuak BAOn argitaratu beharko dira.*

*Azalpena bukatutakoan, hitz egiteko txanda ireki, eta Getxoko Udalaren ordezkari Gutiérrez Paz andreak harta du hitza. Aditzera eman du ez dutela ulertzen zergatik dagoen horrenbesteko presa hori egiteko une honetan, badakitelako Bizkaia berezko proiektua prestatzen ari dela, Arrazionalizazioari*

*Por último, parece conveniente aprovechar la modificación estatutaria para relacionar en el Artículo 1. 1. a todos los municipios miembros de pleno derecho del Consorcio en la actualidad (80), agregando a los ya enumerados aquéllos cuya incorporación al Consorcio se ha producido con posterioridad a la última actualización de los Estatutos en el año 2005.*

*Por lo que se refiere a la tramitación que debe darse a la modificación, el artículo 44 de los estatutos y la Norma Foral 1/1995, de 30 de marzo, de Entidades de Ámbito Supramunicipal de Bizkaia determinan la misma.*

*En primer lugar, la aprobación inicial de la modificación por la Asamblea General constituida en sesión extraordinaria y con el quórum de la mayoría absoluta legal, trámite que se está realizando hoy. La mayoría absoluta del número de votos se alcanza con 279.*

*En segundo lugar, la modificación aprobada inicialmente debe ser objeto de exposición al público por plazo de treinta días hábiles para presentación de alegaciones. Así mismo debe remitirse el acuerdo a la Diputación Foral de Bizkaia para la emisión del informe preceptivo previsto en el art. 27.2 de la Norma Foral citada.*

*El acuerdo de aprobación inicial se entenderá definitivamente adoptado si transcurrido el plazo señalado no se presentaran alegaciones. En caso contrario la Asamblea General decidirá sobre las mismas previamente a la aprobación definitiva.*

*Finalmente, el acuerdo de aprobación de la modificación de los Estatutos, una vez definitivo, será notificado a todas las entidades que integran el Consorcio Ayuntamientos, Diputación Foral de Bizkaia y Gobierno Vasco- para la aprobación de la modificación por cada una de ellas según su legislación específica. Bastará la aprobación de la mayoría de los Entes consorciados para tener por definitivamente aprobada la modificación estatutaria. Una vez aprobados, los Estatutos deberán publicarse en el B.O.B.*

*Finalizada la exposición y abierto el turno de intervenciones, toma la palabra la Sra. Gutiérrez Paz, representante del Ayuntamiento de Getxo, para manifestar que no entienden por qué hay tanta prisa para hacer esto en este momento, ya que saben que en Bizkaia se*

*buruzko Legeari aurre egiteko, delako proiektua izapidetzen ari dela, hain zuzen.*

*Gainera, Bilduk askotan eskatu izan du estatutuak alda daitezela beste arrazoi batzuengatik, batez ere batzar honetako ordezkariek Bizkaian egiaz duten pisua ordezka dezaten nahi dutelako, ehunekoa udalerri bakoitzak duen pisuarekin bat etor dadin eta ordezkapen politikoarekin bat etorri dadin. Izan ere, une honetan, Bizkaian ordezkapenaren ehuneko 35 duen alderdiak botoen ehuneko 75 du hemen.*

*Horregatik guztiagatik, kontrako botoa emango dute, ez dutelako ulertzen hain presazkoa izatea lege espainol horretara egokitzea, foru--aldundian beste bat prestatzen ara denean, eta ez dutelako ulertzen, halaber, nola alda daitezkeen orain estatutuak egokitzapen hori egiteko, beste kasu batzuetan estatutuen aldaketa bat abian jartzeko zailtasunak daudenean.*

*Idazkariak azaldu da estatutuak aipatutako lege--araudira egokitzeko betebeharra argi dagoela; izan ere, 27/2013 Legea 2013ko abenduaren 31n sartu zen indarrean, eta Lege horretako seigarren xedapen gehigarrian ezarrita dago partzuergoek urtebeteko epean egokitu beharko dituztela beren estatutuak. Eta 15/2014 Legeari dagokionez, irailaren 17ko BOEn argitaratu zuten, eta irailaren 18an sartu zen indarrean, bertan xedaturikora egokitzeko sei hilabeteko epea emanda.*

*Presidenteak harta du hitza ondoren, eta berriz nabarmendu du legezko betebeharrak betetzearren proposamen ari dela estatutuak egokitzeko, estatutuen filosofia aldatzeko alorrean sartu gabe. Dena dela, udalerriren batek, edo talderen batek, hitz-hartzaileak aipatutako aldaketen moduko beste aldaketaren bat egin nahi badu, horretarako proposamena egin dezala iradoki du, beta prest baitago estatutuak aldatzeko proposamen zehatzak batzarrari aurkezteko, aztertu eta bozka ditzan.*

*Proposamena bozkatu ondoren, onartua izan da; honela geratu dira emaitzak: aldeko hirurehun eta hirurogeita bat (361) boto eta kontrako hamasei (16) boto.*

*está elaborando un proyecto propio para hacer frente a la Ley de Racionalización, que está en tramitación.*

*Además, Bildu ha solicitado muchas veces la modificación de los Estatutos por otras cosas, sobre todo porque quieren que los representantes en esta Asamblea representen de verdad el peso que tienen en Bizkaia, que d porcentaje esté ajustado al peso que tiene cada localidad y bien ajustado a la representación política. Porque, en este momento, el partido que tiene el 35 por ciento de representación en Bizkaia tiene aquí el 75 por ciento de voto.*

*Por todo ello, van a votar en contra ya que no entienden que sea tan urgente la adaptación a esa Ley española mientras en Diputación se está elaborando otra, y tampoco entienden cómo se pueden cambiar ahora los Estatutos para realizar esa adaptación cuando en otros casos existen dificultades para poner en marcha una modificación de estatutos.*

*Expone la Secretaria que la obligación de adaptar los estatutos a la normativa legal citada resulta clara: la Ley 27/2013 entró en vigor el 31 de diciembre de 2013, y en su Disposición Transitoria Sexta establece que los consorcios deberán adaptar sus estatutos en el plazo de un ario. Y en cuanto a la Ley 15/2014 fue publicada en el BOE el 17 de septiembre, ha entrado en vigor el 18 de septiembre, y da un plazo de seis meses para adaptarse a lo dispuesto en ella.*

*A continuación toma la palabra el Presidente, insistiendo en el hecho de que se está planteando una adaptación de estatutos en cumplimiento de obligaciones legales. No se ha entrado en cambios de filosofía de los estatutos. Peto si algún municipio, o algún grupo, quiere hacer otro tipo de cambios del estilo de los que ha mencionado la interviniente, sugiere que presenten una propuesta en tal sentido, ya que está abierto a someter a la consideración y votación de la Asamblea propuestas concretas de modificación de Estatutos.*

*Sometida la propuesta a aprobación queda aprobada por trescientos sesenta y un (361) votos a favor y dieciséis (16) en contra.*

*Ondorioz, Batzar Nagusiak hauxe erabaki du:*

***LEHENENGOA.***
*Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Estatutuak aldatzeko proiektua hasieran onartzea.*

***BIGARRENA.***
*Aipatutako proiektua jendaurrean jartzea hogeita hamar egun balioduneko epean, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.*

***HIRUGARRENA.***
*Adierazitako epean ez bada alegaziorik aurkezten, hasieran onartutako erabakia behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, Batzar Nagusiak aurkeztutako alegazioen gaineko ebazpena emango du, behin betiko onartu baino lehen.*

***LAUGARRENA.***
*Estatutuak aldatzeko erabakia, behin betikoa denean, Partzuergoa osatzen daten erakunde guztiei -Udalak, Bizkaiko Foro Aldundia eta Eusko Jaurlaritza- jakinaraziko zaie, aldaketa onar dezaten, horietako bakoitzaren berariazko legeriaren eskakizunekin bat etorriz.*

***BOSGARRENA.***
*Onartutako aldaketa honakoa da:*

***KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK***
***1. ARTIKULUA. Eraketa.***

*1. Gaur egungo idazketa*
*Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbao, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Muskiz, Ortuella, Valle de Trapaga-Trapagaran, Santurtzi, Sestao eta Zaratamo udalerriek eta Corporación Administrativa Gran Bilbao elkarteak (elkarte horren funtzioak, gero, abenduaren 18ko 3/1980 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzaren esku geratu ziren) 1967ko martxoaren 17an sortutakoa, hasieratik Bizkaiko Probintziako Diputazioaren partaidetza izan duena (gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiak betetzen ditu erakunde horren funtzioak), eta, gerora, Alonsotegi, Arantzazu, Areatza, Artea, Balmaseda, Ba-*

*En consecuencia, la Asamblea General acuerda;*

***PRIMERO.***
*Aprobar inicialmente el proyecto de modificación de los Estatutos del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia.*

***SEGUNDO.***
*Someter el referido proyecto a información pública por plazo de treinta días hábiles, a fin de que los interesados puedan presentar las alegaciones que estimen oportunas.*

***TERCERO.***
*El acuerdo de aprobación inicial se entenderá definitivamente adoptado si transcurrido el plazo mencionado no se hubieren presentado alegaciones. En caso contrario la Asamblea General resolverá sobre las mismas previamente a la aprobación definitiva.*

***CUARTO.***
*El acuerdo de modificación de los Estatutos, una vez definitivo, será notificado a todas las Entidades que integran el Consorcio -Ayuntamientos, Diputación Foral de Bizkaia y Gobierno Vasco- para la aprobación de la modificación conforme a las exigencias de la legislación específica de cada una de ellas,*

***QUINTO.***
*La modificación aprobada es la siguiente:*

***CAPÍTULO DISPOSICIONES GENERALES***
***ARTÍCULO 1. CONSTITUCIÓN.***

*1 Redacción actual.*
*El Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia, constituido el 17 de marzo de 1967 entre los municipios de Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri Berango, Bilbao, Elxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Muski, Ortuella, Valle de Trapaga-Trapagaran, Santurtzi, Sestao y Zaratamo y la Corporación Administrativa Gran Bilbao, cuyas funciones pasaron luego al Cobierno Vasco en virtud de la Ley 3/1980, de 18 de diciembre, con la participación de la Diputación Provincial de Bizkaia, cuyas funciones ostenta boy la Diputación Foral de Bizkaia, y al que se sumaron sucesivamente*

*rrika, Bedia, Derio, Durango, Erandio, Gamiz-Fika, Gordexola, Gorliz, Güeñes, Igorre, lurreta, Izurtza, Laukiz, Lemoa, Lemoiz, Loiu, Mañaria, Morga, Mungia, Plentzia, Sondika, Sopelana, Ubidea, Ugao-Miraballes, Urduliz, Zaldibar, Zalla, Zamudio, Zeanuri eta Zierbenako udalerriak gehitu zaizkiona, estatutu hauek eraenduko dute, eta, estatutuetan aurreikusten ez diren kasuetarako, kasu bakoitzean aplikatzekoa den arautegiak eraenduko du.*

*Proposatutako idazketa.*

*Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa, Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbao, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Muskiz, Ortuella, Valle de Trapaga-Trapagaran, Santurtzi, Sestao eta Zaratamo udalerriek eta Corporación Administrativa Gran Bilbao elkarteak (elkarte horren funtzioak, gero, abenduaren 18ko 3/1980 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzaren esku geratu tiren) 1967ko martxoaren 17an sortutakoa, hasieratik Bizkaiko Probintziako Diputazioaren partaidetza izan duena (gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiak betetzen ditu erakunde horren funtzioak), eta, gerora, Abadiño, Alonsotegi, Amoroto, Arantzazu, Areatza, Artea, Atxondo, Aulesti, Bakio, Balmaseda, Barrika, Bedia, Berriatua, Derio, Dima, Durango, Elorrio, Erandio, Ereño, Etxebarria, Fruiz, Galdames, Gamiz-Fika, Gatika, Gizaburuaga, Gordexola, Gorliz, Güeñes, Igorre, lurreta, Ispaster, Izurtza, Laukiz, Lekeitio, Lemoa, Lemoiz, Loiu, Mañaria, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mendexa, Morga, Munitibar, Mungia, Ondarroa, Orduña/Urduña, Plentzia, Sondika, Sopela, Sopuerta, Trucios/Turtzioz, Ubidea, Ugao-Miraballes, Urduliz, Zaldibar, Zalla, Zamudio, Zeanuri, Zeberio, Zierbena eta Ziortza-Bolibar: udalerriak gehitu zaizkiona, estatutu hauek eraenduko dute, eta, estatuetan aurreikusten ez diren kasuetarako, kasu bakoitzean aplikatzekoa den arautegiak eraenduko du.*

*4. Artikulua berria*

*Proposatutako idazketa*

*Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hogeigarren Xedapen gehigarriko 1. atalean xedatutakoaren ondorioeta-*

*los municipios de Alonsotegi, Arantzazu, Areatza, Artea, Balmaseda, Barrika, Bedia, Derio, Durango, Erandio, Gamiz-Fika, Gordexola, Gorli , Gueñes, Igorre, lurreta, Izurza, Laukiz Lemoa, Lernoiz Loiu, Mañaria, Morga, Mungia, Plentzia, Sondika, Sopelana, Ubidea, Ugao Miraballes, Urduliz, Zaldibar; Zalla, Zamudio, Zeanuri y Zierbena, se regirá por los presentes Estatutos y en lo no previsto en ellos por la normativa local aplicable en cada caso.*

*Redacción propuesta.*

*EL Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia, constituido el 17 de marzo de 1967 entre los municipios de Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Barakaldo, Basaui, Berango, Bilbao, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Muski, Ortuella, Valle de Trapaga-Trapagaran, Santurtzi, Sestao y Zaratamo y la Corporación Administrativa Gran Bilbao, cuyas funciones pasaron luego al Gobierno Vasco en virtud de la Ley 3/1980, de 18 de diciembre, con la participación de la Diputación Provincial de Bizkaia, cuyas funciones ostenta hoy la Diputación Foral de Bizkaia, y al que se sumaron sucesivamente los municipios de Abadiño, Alonsotegi, Amoroto,Arantzazu, Areatza, Artea, Atxondo, Aulesti, Bakio, Balmaseda, Barrika, Bedia, Berriatua, Derio, Dima, Durango, Elorrio, Erandio, Ereño, Etxebarri, Fruiz, Galdames, Gamiz-Fika, Gordexola, Gorli , Gueñes, Igorre, lurreta, Ispaster, Izurza, Laukiz, Lekeitio, Lemoa, Lernoiz, Loiu, Mañaria, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mendexa, Morga, Munitibar, Mungia, Ondarroa, Orduña/Orduña, Plentzia, Sondika, Sopela, Sopuerta, Trucios/Turtzioz, Ubidea, Ugao-Miraballes, Urduliz, Zaldibar; Zalla, Zamudio, Zeanuri y Zierbena Ziortza-Bolibar, se regirá por los presentes Estatutos y en lo no previsto en ellos por la normativa local aplicable en cada caso.*

*4. Apartado nuevo,*

*Redacción propuesta*

*A los efectos de lo dispuesto en el apartado 1 de la Disposición Adicional vigésima de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el Consorcio*

*rako, Partzuergoa Bizkaiko Foru Aldundiari atxikita geratu da. Foru araudiak atxikipen borren edukia eta irismena zehaztuko ditu.*

*queda adscrito a la Diputación Foral de Bizkaia. La normativa foral determinará el contenido y alcance de dicha adscripción.*

***VIII. KAPITULUA***
***UDALERRIAK BARNE-SARTZEA***
***ETA BANATZEA***

***42.ARTIKULUA. BORONDATEZKO BANATZEA***

*2 Gaur egungo idazketa*

*Udalerri bat edo batzuk bereizteak ez du esan nahi Prtzuergoaren likidaioa egin behar denik; izan ere, tramite hori etenda gera daiteke desegitearen egunera arte; hain zuzen ere, egun horretan, udalerri horiek Partzuergoaren ondasunen likidazioan dagozkien zati alikuotan parte hartuko dute.*

*Hala ere, hala badagokio eta gertakarien arabera, partaidetzaren ordainketa osorik edo zati batean aurreratu ahal izango zaie bereizitako udalerriei, eta soilik horretarako prestatutako elementu edo instalazioak esleitu ahal izango zaizkie.*

*Proposatutako idazketa*

*Udalerri bat edo batzuk bereizteak ez du esan nahi Partzuergoa desegingo denik, baldin eta gainerako kideek Partzuergoak jarraituko duela erabakitzen badute eta gutxienez bi Administraziok bertan jarraitzen badute.*

*Bereizketa-eskubidea gauzatzearen ondorioak 15/2014 Legean eta aplikagarria den gainerako legezko araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira,*

***CAPÍTULO VIII***
***INCORPORACIÓN Y SEPARACIÓN DE MUNICIPIOS***

***ARTÍCULO 42. SEPARACIÓN VOLUNTARIA***

*2. Redacción actual*

*La separación de uno o varios Municipio no obligara a practicar la liquidación del Consorcio, pudiendo quedar dicho trámite en suspenso hasta el día de la disolución del mismo, fecha en la que aquellos Municipios entrarán a participar en la parte alícuota que les corresponda en la liquidación de los bienes del Consorcio.*

*No obstante, en su caso y a la vista de las circunstancia concurrente, se podrá anticipar total o parcialmente el pago de su participación a los Municipios separados, adjudicándoseles aquellos elementos o instalaciones establecidos para el servicio exclusivo de los mismos.*

*Redacción propuesta*

*La separación de uno o varios Municipios no conllevará la disolución del Consorcio si el resto de sus miembros acuerdan su continuidad y siguen permaneciendo en el mismo, al menos, dos Administraciones.*

*Los efectos del ejercicio del derecho de separación se regirán por lo dispuesto en la Ley 15/2014 y demás normativa legal aplicable.*

***X. KAPITULUA***
***PARTZUERGOA DESEGITEA***

***46. ARTIKULUA. JARDUNBIDEA***

*5. Artikulu berria*

*Proposatutako idazketa*

*Kapitulu honetan berariaz aurreikusita ez dauden kasuetarako, 15/2014 Legean eta aplikagarria den gainerako legezko araudian ezarritakoa beteko da.*

***CAPÍTULO X***

***DISOLUCIÓN DEL CONSORCIO***

***ARTÍCULO 46. PROCEDIMIENTO***

*5. Apartado nuevo*

*Redacción propuesta*
*En lo no previsto expresamente en este capítulo se estará a lo dispuesto en la Ley 15/2014 y demás normativa legal aplicable.*

*Presidenteak Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko estatutuen aldaketaren onarpena bozketara eramaten du:*

- *Alde: 4, PNV(3) eta PP (1).*
- *Kontra: 0.*
- *Abstentzioak: 4, BILDU (1), PSE-EE (PSOE) (2) eta ARALAR (1).*

*Osoko Bilkurara eramango da aipatutako estatutuen onarpen proposamena*."

*La Presidenta pone a votación la aprobación de la modificación de los estatutos del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia:*

- *Votos a favor: 4 PNV (3) y PP (1).*
- *Votos en contra: 0.*
- *Abstenciones: 4: BILDU (1), PSE-EE (PSOE) (2) y ARALAR (1).*

*Elevándose al pleno propuesta de aprobación de los citados estatutos*."

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Udalak batzorde informatiboak hartutako irizpidean laburtu egiten da zein izan den orain arteko prozedura eta estatutu hauen egokitze-prozedura.

Prozedura honi hasiera ematen dion lehendabiziko arrazoietariko bat partzuergoak toki administrazioaren arrazionalizazioa eta iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legean nahiz sektore publikoaren arrazionalizazio eta administrazioaren erreformarako beste neurri batzuei buruzko 15/2014 Legean xedatutakoa egokitzeko betebeharra izan da. Egokitze lan hauek, hasiera batean, urte beteko epean eman behar ziren; bestalde 15/2014 Arrazionalizazio Legeak banatzeko eskubidea eta partzuergoaren likidazioa arautzen ditu.

Partzuergoaren estatutuetan, bai banaketari eta bai likidazioari dagozkion arloak, artikuluak ez datoz bat edo ez dira legeak bezain zehatzak, eta horregatik proposatzen da beraiek egokitzea dagokion lege honi luzapena eginez. Honez gain, aprobetxatu egiten da estatutuen egokitze lan hauek gaur egun partzuergoa osotzen duten 80 herriak zerrendatzeko.

Egindako tramitazioak, arau foralaren arabera, partzuergoa osatzen duten udal zein instituzioen behin betiko onespena eskatzen du dagokion gehiengoa lortu ahal izateko eta aldaketa hauek buletinean publikatu izateko eraginkorrak izan daitezen. Horregatik ekartzen da osoko bilkurara.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: En el dictamen emitido por la comisión informativa se resume el procedimiento seguido hasta ahora y se da cuenta del procedimiento de adecuación de dichos estatutos.

Una de las razones que da inicio a este procedimiento tiene que ver con la necesidad de adecuación del Consorcio a la Ley 27/2013, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, así como a lo establecido en en la Ley 15/2014, de racionalización del Sector Público y otras medidas de reforma administrativa. Estas tareas de adecuación, en un principio, debían llevarse a cabo en el plazo de un año; por otro lado, la Ley 15/2014 de racionalización regula el derecho de separación y la liquidación del Consorcio.

En los estatutos del Consorcio, tanto en relación a la separación como a la liquidación, los artículos difieren o no son tan concretos como lo es la Ley, y es por ello que se propone su adecuación dando continuidad a lo establecido en la citada Ley. Además, se aprovecha la adecuación de los estatutos para establecer la relación de los 80 municipios que componen el Consorcio.

La tramitación realizada, en virtud de la norma foral, requiere de la aprobación provisional de los municipios e instituciones que toman parte en el Consorcio en aras a la consecución de la mayoría correspondiente y para que dichas modificaciones sean efectivas de cara a la publicación en el boletín. Es por ello que se trae a pleno.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Kontra bozkatuko dugu. Ez dugu uste premiazko aldaketak direnik eta are gutxiago kontuan izanik egonkortasun eta arrazionalizazio legearen poderioz egiten den aldaketa bat dela. Nahiko argi dago zein den gure jarrera lege horren inguruan.

Gainera ez dugu ulertzen zergatik egiten den une honetan, jakinik Bizkaian arau foral bat egin dela egonkortasun eta arrazionalizazio legeari aurre egiteko.

Baina guretzat garrantzitsuena da udal lege bat ari garela aztertzen Gasteizko Legebiltzarrean, eta udal lege horretan ezarriko da partzuergoen izaera eta osaera, eta uste dugu normalena izango litzatekeela udal legea edo tokiko erakundeen legea onartu arte horrelako aldaketak ez egitea eta, egitekotan, badaude beste gai batzuk, guretzat behintzat askoz ere garrantzitsuagoak, Ur Partzuergoaren estatutuak aldatzeko orduan; beraz, ez diogu aldeko bozka emango aldaketa hauei.

* **Del Amo Castro jaunak (Bildu)**: Aktan jasotzen den bezala guk partzuergoko batzarrean kontrako botoa eman genuen. Ordutik aldaketa batzuk eman dira legedia mailan; nagusiena da Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu egin dutela arrazionalizazio foru araua, EH Bilduren ia emendakin guztiak onartu eta gero, PNV eta EH Bilduren babesarekin. Izatez, Espainiako gobernuak jarritako lege baten aurkako erantzunaz ari gara eta gu erabat kontra gaude lege horren edukiekin, beraz, adostu duguna Bizkaiko Foru Aldundiarekin zera da, gure eskumenak baliatzea lege horren eragina lausotzeko.

Dena den, hiru arlo nagusien inguruan ez genuen akordiorik lortu eta bata Partzuergoaren adskripzioarena da. Gure ustez oraindik eztabaidan dagoen neurri bat hartzea ondorio kaltegarriak izan ditzake egokitu zaion tokiko administrazioari. Hortaz kontra bozkatzeko argudioak indarrean mantentzen direla uste dugu.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Votaremos en contra. No pensamos que se trate de modificaciones urgentes, menos aún si tenemos en cuenta que se trata de modificaciones motivadas por la ley de racionalización y sostenibilidad. Nuestra postura en relación a dicha ley es bien clara.

Tampoco entendemos por qué se hace la modificación en estos momentos, justo cuando en Bizkaia se ha elaborado una norma foral para hacer frente a la ley de racionalización y sostenibilidad.

Para nosotros lo importante es que se está procediendo al estudio de una ley municipal en el Parlamento de Vitoria, y será dicha la ley la que establecerá la naturaleza y composición del Consorcio. Pensamos que lo normal sería no hacer modificaciones hasta que se apruebe la ley municipal o ley de organismos locales. Pensamos que existen otros asuntos mucho más susceptibles de ser modificados en los estatutos del Consorcio. Como he adelantado, no vamos a votar a favor.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (Bildu)**: Tal y como se recoge en el acta, en la reunión del Consorcio votamos en contra. Desde entonces se han producido algunas modificaciones en la legislación, la más importante es que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado una norma foral de racionalización, con el apoyo del PNV y de EH Bildu, y tras aceptar la mayoría de las enmiendas presentas por EH Bildu. Me refiero a la respuesta dada a una Ley del Gobierno Español, Ley con la que estamos completamente en desacuerdo. Por lo tanto, lo que hemos consensuado con la DFB es valernos de nuestras competencias con el fin de difuminar los efectos de la citada Ley.

No obstante, no llegamos a acuerdo en tres aspectos importantes, uno de ellos, la adscripción del Consorcio. Pensamos que adoptar una medida en el contexto de un debate que sigue abierto puede acarrear consecuencias a la administración local. Es por ello que siguen vigentes nuestros argumentos para votar en contra de la propuesta.

Bi dira argudio nagusiak; alde batetik, partzuergo eta mankomunitateen tokiko erakunde bati atxikitzea oraindik eztabaidan dago. Espainia, estatutik bertatik, sakonago lantzen ari da eta jada hainbat aldaketa sartzen ari dira, hortaz, gure ustez, goizegi da eragin handia izan dezakeen neurri bat aplikatzen hasteko.

Bestetik, batzarrean planteatu genuen beste argudio bat ere badago, partzuergoko estatutuak demokrazia eta parte-hartzearen ikuspegitik aldatu egin beharko lirateke. Beharrezkoa aldaketa da, eta ez dugu bakarrik guk planteatzen, herri kontuen euskal epaitegiaren txostenek ere aspaldi salatu dute.

Beraz, hemen partzuergoko estatutuekin Espainiako Konstituzioarekin bezala gertatzen da: aldaketa batzuk demokrazian sakontzeko oso zailak ikusten dira eta beste batzuk, kanpotik ezarritako murrizketak aplikatzerako orduan, di-da batean egiten dira.

Beraz, guk demokrazian sakontzeko aldaketak proposatu ditugu hainbat aldiz eta oraindik ez da ezer egin; baina orain dator beste aldaketa proposamen hau, horregatik guk uste dugu aldaketa egitekotan sakonagoa eta demokratikoagoa izan beharko litzatekeela eta ez Espainiako gobernuak hala erabaki duelako. Prekauzio printzipioari atxikita, kontrako botoa emango dugu.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidentak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralar.
- Abstentzioak: BI, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra

Por un lado, todavía estamos debatiendo la adscripción del Consorcio y de las Mancomunidades a un organismo local. El estado español está discutiendo el asunto con mayor profundidad, y de hecho, ya han incluido algunas modificaciones. Es por ello que nos parece prematuro aplicar unas medidas de tal alcance.

Por otro lado, pensamos que los estatutos del Consorcio deben ser modificados desde el punto de vista democrático y participativo. Es un cambio necesario, y no somos los únicos que lo planteamos, también lo ha hecho el Tribunal de Cuentas a través de sus informes.

Por lo tanto, con los estatutos del Consorcio ocurre lo mismo que con la Constitución española: las modificaciones planteadas para profundizar en la democracia son muy difíciles de conseguir, mientras que las realizadas para aplicar las restricciones hechas desde fuera se llevan a cabo en un santiamén.

Es por ello que, hemos propuesto en más de una ocasión modificaciones para profundizar en la democracia, pero no se ha hecho nada al respecto. Y ahora se nos trae esta propuesta de modificación, pero la modificación debe ser de carácter democrático y no porque así lo haya decidido el gobierno español. Acogiéndonos al principio de precaución, votaremos en contra.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.
- Abstenciones: DOS, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Estatuen Aldaketa ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko proposamena.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda **APROBAR** la **Modificación** de los **Estatutos del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia**, conforme al texto anteriormente transcrito.

**BOST.- DURANGOKO BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN IZENEAN MARIA NIEVES SARRIONANDIA DERTEANO ANDREAK AURKEZTURIKO MOZIOA UDAL KALE-IZENDEGIARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2015001360 OTSAILAREN 18KOA).**

Durangoko Berdintasunerako Udal Kontseilularen izenean Maria Nieves Sarrionandia Derteano andreak aurkezturiko Mozioa Udal Kale-Izendegiari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2015001360, 2015eko otsailaren 18koa.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Mozioa nik neuk sartu dudanez gai-zerrendan eta batzordearen aholkuz, irakurri egingo dut, eta osoko bilkura amaitutakoan aukera egongo da parte hartzeko eta nahi dena esateko.

MOZIOA IRAKURTZEN DU:

*"Kale-izendegiari erreparatuz konturatu gara Durangok **ez duela emakume izendun kalerik, Andra Maria eta Santa Ana salbu.** Durangoko Berdintasun Kontseilutik ezinbestekotzat jotzen dugu **Euskal Herriaren historian emakumeek egin dituzten ekarpen garrantzitsuak agerian jartzea eta zabaltzea,** eta uste dugu kale-izendegian emakumeen presentzia urriak begien bistan uzten duela emakumeok pairatzen dugun **diskriminazio historikoa** eta gure lanari eman zaion aitorpen publiko eskasa.*

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR DOÑA MARIA NIEVES SARRIONANDIA DERTEANO, EN NOMBRE Y REPRESENTACIÓN DEL CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD, RELATIVA AL CALLEJERO MUNICIPAL. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015001360 DE 18 DE FEBRERO DE 2015).**

Dada cuenta de la Moción presentada por Doña Maria Nieves Sarrionandia Derteano, en nombre y representación del Consejo Municipal de Igualdad, relativa al Callejero municipal, con Registro de Entrada nº 2015001360 de 18 de Febrero de 2015.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): La moción la he incluido yo misma en el orden del día puesto que así se me ha pedido en comisión. Procederé a leerla, y una vez concluido el pleno habrá la posibilidad de participar y opinar sobre el asunto.

LEE LA MOCIÓN:

*"Una revisión del callejero municipal ha permitido comprobar que Durango **no tiene calles con nombre de mujer, a excepción de Andra Mari y Santa Ana**. Desde el Consejo de Igualdad de Durango creemos indispensable que **se visibilicen y difundan las importantes aportaciones que han desarrollado las mujeres en la Historia de Euskal Herria**, y consideramos que esa insignificante presencia de mujeres en el callejero municipal evidencia **la discriminación histórica** que sufrimos las mujeres y el escaso reconocimiento público que se ha brindado a nuestra labor.*

*Sumatzen dugu, era berean, izendegian agertzen diren emakume bakarrak, birjina eta santa izateak ez dituela Durango, Durangaldea, Euskal Herria edo Estatuko **emakumeek historiari edo kulturari egindako ekarpen anitzak islatzen**. Nahitaezkoa da gure herriko horma eta kaleak baliatzea emakumeek hainbat esparrutan egindako lana zabaltzeko; dela kulturan, jendartean, arlo politikoan, zientzietan, enpresa munduan edota euskararen zabalkundean.*

***Ondorioz, Durangoko Udalbatzak ondorengoak onartzen ditu:***

1. *Berdintasun Kontseilua buru dela emakumeen zerrenda bat egiteko prozesuari hasiera ematea. Prozesu hau amaitzean, bi hilabete iraun beharko lukeena gehienez, adierazpen publikoa egitea beronen berri emanez.*

2. *Durangon izena jartzen zaion hurrengo kale, plaza, eraikuntza, parke, eta abarrek emakume izena izatea, eta Udalbatza honek gizon eta emakumeei eskainitako kale-izenen kopurua parekatzeko konpromisoa hartzen du.*

3. *Asko jota, urtebeteko epean, Durangoko kale, plaza, eraikuntza, parke eta abar emakume izenekin izendatzea.*

4. *Durangoko Udalak gizon eta emakumeen arteko Berdintasun arloa jorratzeko konpromiso publikoa hartzen du, Udaleko sail guztietan, eta bide honetatik Berdintasun Kontseilutik martxan jarritako proiektu guztiak burutu daitezela, Hiri Debekatuaren Mapa, besteak beste.*

5. *Kale, plaza, eraikuntza, parke eta abarren izen berriekin batera argitalpen bat prestatzea, Durangon, emakumeak maila sozialean onesteko, izen bakoitzari dagozkion meritu eta ekarpenak azalduz. Gida hau baliagarri izan dadila emakumeen ekarpenak onartzeko, sentsibilizatzeko eta*

*Advertimos, al mismo tiempo, que el hecho de que las dos únicas mujeres presentes en el callejero sean santas **no refleja la diversidad de las mujeres que han realizado aportaciones a la historia y a la cultura** de Durango, Durangaldea, Euskal Herria o el Estado. Es vital que las paredes y calles de nuestro pueblo sirvan para divulgar el trabajo realizado por mujeres en distintos ámbitos, ya sea en el mundo cultural, social, político, científico, empresarial o en la difusión del euskera.*

***En consecuencia, la Corporación de Durango aprueba los siguientes puntos:***

1. *Iniciar un proceso liderado por el Consejo de Igualdad para elaborar una lista de mujeres cuya contribución queramos realzar asignándoles nombres de calles, plazas, edificios, parques, etc. Que al finalizar este proceso, que no debería durar más de dos meses, se haga una declaración pública en este sentido.*

2. *Que la próxima calle, plaza, edificio, parque, etc que se abra en Durango tenga nombre de mujer y que por parte de esta Corporación haya un compromiso para equiparar el número de calles dedicadas a mujeres y hombres.*

3. *Que en el plazo de un año, como máximo, se hayan asignado nombres de mujeres a calles, plazas, edificios, parques, etc de Durango.*

4. *Que el Ayuntamiento de Durango se comprometa públicamente a trabajar la Igualdad entre hombres y mujeres de forma transversal en todas las áreas municipales, y concluyan todos los proyectos puestos en marcha desde el Consejo de Igualdad en ese contexto, como el Mapa de la Ciudad Prohibida.*

5. *Que junto a las nuevas denominaciones de calles, plazas, edificios, parques, etc se elabore una publicación que explique los méritos y aportaciones de cada nombre al reconocimiento social de las mujeres en Durango. Que esta guía sirva para profundizar en el trabajo de sensibilización, divulgación y reconocimiento de las mujeres*

*zabalkundea egiteko jendarteko sektore guztietan, eta bereziki jende gaztearen artean."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: mozio honek agerian uzten duena da Durangon ez dagoela emakume izendun kalerik, baina ez hori bakarrik, baizik eta gizon izendun kale asko dagoela eta argi dago alde horretatik diskriminazio bat dagoela. Mozio hau diskriminazio hori konpontzera dator eta alde horretatik ondo ikusten dugu.

Horretaz gain, agerian uzten du baita ere beste gabezia bat, aspaldidanik pendiente daukagula gure kale-izendegia. Aspaldidanik diot, zeren 2011ko apirilaren 13an onartu zen osoko bilkura honetan batzorde berezi bat egitea kale-izendegia aztertzeko.

Aurrekaria Alberto Erraztik urte batzuk lehenago egin zuen toponimia azterketan aurkitu behar da. Baina oraindik ez da batzorderik eratu, ez da batzordea eratu, ezta kale-izendegia berraztertu. Nolanahi ere, mozioaren aldeko bozka emango dugu, ondo iruditzen zaigulako.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Mozioaren aldeko botoa emango dugu, eskari erabat logikoa dela iruditzen zaigulako.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Guretzat oinarri-oinarrizkoa da politika publiko guztietan berdintasuna eta genero-perspektiba txertatu beharra, eta horrexegatik aurkeztu ditugu, behin baino gehiagotan, hainbat proposamen ordenantza fiskaletan zein udal aurrekontuetan. Behar beharrezkoa dela irizten diogu, eta beharrezkoa da baita ere Udaleko sail guztietatik zeharkako lana egitea aipatutakoaren inguruan.

Eta noski, mozio honen alde gaude. Gure udalerrian gizonezkoen kale-izenak baino ez daude, eta hauetako batzuk, gainera, militarren izenak dira. Ez da modurik eraginkorrena berdintasuna lortzeko, horixe baita proposatzen den helburua. Beste barik, aldeko botoa emango dugu.

*en todos los sectores de la sociedad, y de forma especial entre la gente joven."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Esta moción deja claro que en Durango no hay calles con nombre de mujer, y no solo eso, sino que hay demasiadas calles con nombres de varón, lo cual supone una manifiesta discriminación. Y la moción que se trae tiene por objeto solucionar dicha discriminación, lo cual nos parece bien.

Por otro lado, nos trae a la memoria una carencia que viene de tiempo atrás, esto es, tenemos pendiente el estudio del callejero municipal. Fue el 13 de abril de 2011 cuando se aprobó en pleno la creación de una comisión específica para revisar el tema de la denominación de las calles del municipio.

El precedente inmediato fue el estudio de toponimia realizado por Alberto Errazti. Sin embargo, todavía no se ha reunido la comisión ni se revisado el callejero municipal. No obstante, votaremos a favor de la moción, puesto que nos parece correcta.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Solamente anunciar nuestro voto a favor porque nos parece una solicitud totalmente lógica.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Antes de nada queremos partir de la base que, desde nuestro punto de vista de integrar la igualdad y la perspectiva de género en todas las políticas públicas, consideramos que es una obligación, y por ello hemos hecho diferentes propuestas tanto en las ordenanzas fiscales como en los presupuestos municipales. Creemos que ello es fundamental junto con el trabajo transversal desde todas las áreas de este Ayuntamiento.

Por supuesto que estamos a favor de la propuesta que hoy se trae aquí. Creemos que en nuestro municipio solamente hay calles con nombres masculinos, y alguno de ellos de militares. No es lo más adecuado para llegar a la equidad, que es el objetivo propuesto. Vamos a votar a favor de la moción.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: 2008an beka bat eman zuen udal honek Durangoko lan toponimikoa egiteko. Eta Alberto Erraztik lan oso ona egin zuen. Bai bere lanak eta bai Nazio Batuek gomendatzen dutena da kale berriei ez ipintzea pertsonen izenak.

Guk ikusten duguna da Durangon kale asko daudela, 25 inguru, gizonezkoen izenekin eta emakume izena dauzkatenak Santa Ana, Santa Luzia, Santa Susana eta Andra Maria dira. Ez daude parekatuta eta honen inguruan lan handia egin behar dela ikusten dugu.

2011ko apirilean hemengo Osoko Bilkuran egon zirenak onartu zuten batzorde berezi bat sortzea kaleek daukaten desberdintasun horiek parekatzeko. Pasatu dira lau urte eta oraindik ez da ezer egin. Orain Berdintasun kontseiluak izan du ekimena eta konturatu dira gizonezko izen larregi dagoela kaleen izenetan eta emakumearen papera ez dela inon islatzen.

2011koa ez da bete, baina mozio honen bitartez aukera egongo emakumeen izenak Durangoko kale, plaza edo eraikinetan agertzeko. Eskerrak eman nahi dizkiogu berdintasun kontseiluari izan duten ekimenarengatik, guk kontseiluan parte hartuko dugu eta gure proposamenak eramango ditugu hau guztia posible egiteko. Bihar hasiko gara lehenengo bilerarekin eta, beraz, mozioari aldeko bozka emango diogu.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure aldeko bozka emango diogu mozioari; proposamen bikaina dela iruditzen zaigu. Toponimiaren ikerketa gomendio bat da ez da derrigorrezko dogma bat. Gu enparantzei eta kaleei emakume izenak ematearen aldekoak gara nahiz eta toponimia ikerketak beste gauza batzuk gomendatu.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Derrigorrezkoa izan beharko litzatekeena da Osoko Bilkura honek onartzen dituen proposamenak aurrera eramatea. Argi dago Eusko Alderdi Jeltzalearentzat hori ez dela derrigorrezkoa, berdin zaiola hemen zer gertatzen den, azken baten, gero, beti nahi duena egiten duelako. Hau ez da salbuespen bat, hainbat

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: En 2008 este Ayuntamiento concedió una beca para la realización del estudio de toponimia. Alberto Errazti realizó un trabajo extraordinario. Y tanto en el trabajo de Errazti como en las directrices de Naciones Unidas se aconseja no poner nombres de persona a las calles de nueva creación.

En Durango existen 25 calles con nombres de persona, de ellas solo 4 llevan nombre de mujer: Santa Ana, Santa Luzia, Santa Susana y Andra Maria. No existe paridad, por lo que creemos que hay que trabajar este aspecto.

En 2011 se acordó en pleno la creación de una comisión específica para revisar el callejero municipal. Han transcurrido 4 años desde entonces y todavía no se ha hecho nada al respecto. La iniciativa actual corre a cargo del Consejo de Igualdad, que se ha percatado de que la presencia de la mujer en el callejero municipal brilla por su ausencia.

No se ha cumplido lo acordado en 2011, pero gracias a esta moción existirá la posibilidad de que se reflejen los nombres de mujer en las calles, plazas y edificios del municipio de Durango. Agradecemos al Consejo de Igualdad por la iniciativa. Nosotros participaremos en el consejo, y llevaremos nuestras propuestas al mismo. La primera sesión será mañana. Sin más, votaremos a favor de la moción.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Votaremos a favor de la moción, porque nos parece una propuesta excelente. El estudio de toponimia hace recomendaciones, pero no es ningún dogma. Somos partidarios de dar nombre de mujer a las calles y plazas a pesar de lo que recomiende el estudio de toponimia.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Lo que debería ser realmente obligatorio es que se lleven adelante las propuestas adoptadas en este pleno. Pero esta claro que no es así para el PNV, pues le da lo mismo lo que aquí ocurre, puesto que, a fin de cuentas, hace lo que le viene en gana. Y esta no es una excepción;

bider ikusi dugu hori hemen, hau da, gauza bat onartu eta eurek beste bat egin.

2011ko apirilaren 13an hemen onartu zen batzorde berezi bat egitea kale izendegia aztertzeko eta lau urte pasatu direnean jarraitzen dugu batzorde hori eratu barik, eta mozioen bitartez edo herritarren ekimenei esker konpontzen dira gure kale-izendegian dauden akatsak. Eta seguruenik horrela jarraitu beharko dugu batzorde hori eratzen ez den bitartean.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Eusko Alderdi jeltzaleko Bozeramaileak esan du aurreko bilkura batzuetan gizonezkoen izenak aipatu direla, baina gogoratu behar da alderdi jakin batzuetako gizon izenak eta proposamenak izan direla.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Bilduko bozeramaileak esan du toponimia ikerketa gomendiozkoa dela, eta beste erakunde batzuek ere gauza bera esaten dute, beraz, ez da Eusko Alderdi Jeltzalea bakarrik, baizik eta gu baino maila altuago batean dauden erakunde jakitun batzuk ere gauza bera diote.

Esan da baita ere ez dela batzorde berezirik proposatu, baina gogoratu behar diot Aralarreko Bozeramaileari Hirigintzako Batzordeetan behin eta berriro eztabaidatu dela gai honi buruz, beste gauza bat da bera bertan egon den edo ez. Baina hori ez da gure arazoa, Aralarrena baizik. Poztu egiten gara mozio hau aurkeztu izanaz eta aldeko bozka emango diogu.

lo hemos visto a menudo: el pleno acuerda una cosa y ellos hacen otra.

El 13 de abril de 2011 se acordó la constitución de una comisión específica para estudiar el callejero municipal, pero tras haber transcurrido cuatro años seguimos en las mismas. Y solo a través de mociones o por iniciativas populares se solucionan los errores de nuestro callejero municipal. Y parece seguro que así seguiremos mientras no se constituya la mencionada comisión específica.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: La Portavoz del PNV ha señalado que en sesiones anteriores se propusieron nombres de varones, pero hay que recordar que se trataba de varones de determinados partidos políticos.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: La Portavoz de Bildu ha dicho que el estudio de toponimia, al igual que lo hacen otros organismos, “aconseja”, por lo que no es solo el PNV quien así lo entiende, sino que también lo hacen otros organismos con un grado de conocimiento superior al nuestro.

Se ha dicho también que no se ha propuesto la creación de una comisión específica, pero debo recordar al Portavoz de Aralar que en la Comisión de Urbanismo se ha tratado esta cuestión en más de una ocasión, otra cosa es que el Portavoz de Aralar no haya asistido a las sesiones. Pero ese no es nuestro problema, sino el de Aralar. Nos alegramos de haber presentado esta moción, y votaremos a favor.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSO BILKURAK, aho batez, **ONARTU EGITEN DU** Durangoko Berdintasunerako Udal Kontseiluaren izenean Maria Nieves Sarrionandia Derteano andreak aurkezturiko Mozioa goian zehazturiko proposamena.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, **APRUEBA** el texto de la Moción presentada por Doña Maria Nieves Sarrionandia Derteano, en nombre y representación del Consejo Municipal de Igualdad, anteriormente transcrita.

**SEI.- EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA UDAL TALDEAREN MOZIOA, BI-623 ERREPIDEA EGOKITZEARI BURUZ 29+200 ETA 30+200 KILOMETRO-PUNTUEN ARTEAN (SARRERA ERREGISTROA 2015001399, 2015EKO OTSAILAREN 20KOA).**

* Agorria Martinez andrea PSE-EE (PSOE) irakurri egiten du bere Taldearen Mozioa aurkeztuta, BI-623 errepidea egokitzeari buruz 20+200 eta 30+200 kilometro puntuen artean buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2015001399, 2015eko otsailaren 20koa:

*Tabirako biribilgunea gure udalerriko errepideetako "punturik beltzenetako bat" da. Biribilgunearen diseinu okerrak 92 istripu eragin ditu. Balantzea hauxe: 260 kaltetu istripuetan, 3 biktima larriki zaurituak eta 3 hildako.*

*Egin zenetik zenbait urte igaro ostean eta hainbat erreklamazio aurkeztu eta gero, 2014ko uztailaren 15ean, Diputazioak lizitaziorako egitasmoa prestatu eta iragarri zuen, hemendik proposatu genizkion aldaketei jaramonik egin gabe. Egungo proiektuak, dagoeneko esleitua, ezabatu egiten du Gasteizbidea sarrera zuzen moduan, alegia, erdigunerako sarbide zuzena (Barandiaran, Zumalakarregi, Alde Zaharra,...). Oraingo diseinuarekin ibilgailuek Intxaurrondoko biribilguneraino joan beharko lukete eta bertan buelta eman. Bidean, zortzi oinezkoen pasabide igaro beharko lituzkete leku berera heltzeko eta Gasteizbidetik sartu ahal izateko. Beste aukera bat da Intxaurrondo erabiltzea sarbide moduan, baina kale hau ez dago prestatuta horrenbesteko trafikoari aurre egiteko.*

*Behin baino gehiagotan salatu dugu harremanik egon ez izana Diputazioaren eta Udalaren artean Tabirako biribilgune-egitasmoa diseinatu eta lizitatu baino lehen, eta harremanik ez egoteak eragin du egitasmoa akats askorekin lizitatzea. Gainera, 2015eko otsailaren 16an, hirigintza batzordean, jakinarazi zitzaigun Diputazioaren erantzuna jaso zela 2014ko abenduaren 17an. Idatzian esaten*

**SEIS.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVO A LAS OBRAS DE MEJORA DE LA CARRETERA BI-623, DEL P.K. 20+200 P.K. 30+200 DE DURANGO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015001399 DE 20 DE FEBRERO DE 2015).**

* La Concejala Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE) da lectura a la Moción presentada por su Grupo, relativa a las obras de mejora de la carretera BI-623, del P.K. 20+200 P.K. 30+200 de Durango, con Registro de Entrada nº 2015001399 de 20 de Febrero de 2015:

*La rotonda de Tabira es "uno de los punto negro" de las carreteras en nuestro municipio, su deficiente diseño ha provocado 92 accidentes, con 260 personas implicadas, de las cuales 3 han sido victimas graves y 3 victimas mortales.*

*Después de muchos años y de numerosas reclamaciones, el 15 de julio de 2014 la Diputación elaboró y publicó el proyecto para la licitación, sin mantener reuniones previas con el ayuntamiento y haciendo caso omiso de las modificaciones que habíamos propuesto. El proyecto actual, ya adjudicado, elimina del acceso directo a Gasteiz bidea, la entrada directa hacia el centro, (Barandiaran, Zumalakarregui, casco viejo...). Con el actual diseño los vehículos tendrían que ir hasta la rotonda de Intxaurrondo y dar la vuelta, cruzando ocho pasos de peatones para llegar al mismo sitio y poder entrar por Gasteiz bidea. Otra de las posibles vías que podrían tomar los vecinos es Intxaurrondo, calle que no esta preparada para asumir ese trafico.*

*Hemos denunciado en reiteradas ocasiones que no se hayan mantenido contactos previos entre Diputación y Ayuntamiento antes de elaborar y licitar el proyecto del centrado de la rotonda de Tabira, lo que ha provocado que el proyecto se licite con graves deficiencias. Además, el 16 de febrero de 2015, en comisión de urbanismo, se nos informa que el 17 de diciembre de 2014 se*

*denez, Gasteizbideko biribilguneko sarbide zuzena ezabatu egiten da bide-segurtasunaren mesedetan, baina hirigintza batzordeko kideek ez dugu ez ulertzen ez onartzen argudio hori.*

*Honegatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten dugu osoko bilkurak onartu dezan:*

1. *Durangoko Udalak Foru Gobernuari eskatzen dio presazko batzar bat deitu dezala eta kontuan har ditzala Durango Udalak egindako ekarpenak eta, halaber,* ***BI-623 ERREPIDEAREN OBRA-EGITASMOA ALDATU DEZALA DURANGOKO 29+200 p.k.-tik 30+200 p.k.-ra****.*

2. *Durangoko Udalak Foru Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzara eskatzen die aldez aurreko harremana izan dezatela udal honekin Durango udalerriari dagokion edozein obra zibil iragarri baino lehen."*

*recibió una respuesta de Diputación, alegando a la seguridad vial para eliminar la entrada directa desde la rotonda hacia Gasteiz Bidea, argumento que no entendimos ni compartimos los miembros de la comisión de urbanismo.*

*Por todo ello, proponemos para su debate y aprobación en el pleno la siguiente Moción*

1. *El Ayuntamiento de Durango insta al Gobierno Foral a que mantenga una reunión urgente, tenga en cuenta las aportaciones hechas por el Ayuntamiento y modifique el proyecto de* ***LAS OBRAS DE MEJORA DE LA CARRETERA BI-623, del p.k. 29+200 p.k. 30+200 DURANGO****.*

2. *El Ayuntamiento de Durango insta al Gobierno Foral y al Gobierno Vasco a mantener contacto previo a la publicación de cualquier obra civil que afecte al municipio de Durango."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Mozioaren alde bozkatuko dugu.

Mozio honek agerian ustez ditu bi gertakari larri. Administrazio bat dago, Diputazioa kasu honetan, bere eskumena garatzen duena, baina horretarako udal eskumenean sartzen da edo urratu egiten du. Hiri-antolaketa, kale-mugikortasuna edo autoen trafikoa arautzea ez da diputazioaren eskumena, baizik eta udalarena. Kasu honetan Diputazioa udal eskumenetan sartu da eta hori ez da inondik inora zuzena, baina agerian uzten duena da udal gobernuak ez duela defendatu gure eskumena. Zelan da posible beste administrazio batek obra bat egitea eta gure eskumenetan sartzea eta hemendik inor ez joatea Diputaziora esatera hori ezin dela egin.

Bestalde, hemen inork ez du eman azalpen teknikorik esateko mugikortasun aldetik zergatik den hobea Gasteizbideko sarrera hori moztea kontuan izanda nolako eragozpenak sorraraziko diren trafiko eta mugikortasun aldetik inguru horretan. Beraz, guretzat hemen udal gobernuak ez ditu bere eskumenak defenditu behar den bezala.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Votaremos a favor de la moción, puesto que deja en evidencia dos hechos muy graves.

Por un lado, hay una administración, en este caso la Diputación, que para desarrollar sus competencias, intercede en las competencias municipales y las quebranta. La ordenación urbana, la movilidad urbana y el tráfico no son competencias de la Diputación, si no del Ayuntamiento. En este caso, la Diputación se ha interpuesto en las competencias municipales, y eso no es, de ninguna manera, aceptable. Pero, además, deja en evidencia que el Gobierno municipal no ha defendido nuestras competencias. ¿Cómo es posible que otra administración lleve a cabo unas obras y se inmiscuya en nuestras competencias, y nadie vaya a la Diputación a decirles que eso no se puede hacer?

Por otro lado, aquí nadie ha explicado técnicamente por qué, por motivos de movilidad, es mejor cerrar la entrada de Gasteizbidea, teniendo en cuenta los problemas que ello causaría al tráfico y a la movilidad de esa zona. Por todo ello, en nuestra opinión, el Gobierno municipal no ha defendido nuestras competencias como es debido.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Ezer baino lehen, aurreratu nahi dut alde bozkatuko dugula, Aldundiak ez duelako hitzarmena bete; izan ere, batzar batzuk proposatu behar zituzten Durangoko Udaleko Bulego Teknikoaren eta Aldundiaren artean. Obra honek foru-titulartasuneko zonari eragiten dio, baina baita Udalaren titulartasuneko zona bati ere. Zer egingo du Durangoko Udalak obrak egiteko baimena eskatzen denean?

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Tabiratik Durangora daukagun sarrera oso arriskutsua dela ezin dugu zalantzan jarri: hor ditugu istripuen zenbakiak. Urteak dira irtenbide baten zain gaudela herritarrok. Badirudi hauteskunde urtean planteatzen dela soluzioa, baina inork aztertu al du berau? Nire zalantzak ditut, eta arazoa konponbidean baino okerrera joango dela sumatzen dugu.

Durangora sartzeko Gasteizbidea erabiltzen duten gidariak asko gara, eta ez dauka sentsurik bide hau hartzeko Arriluzea kalea zeharkatu behar izatea, 4 oinezkoen pasabide pasatu, beste biribilgune batera joan eta berriz ere Arriluzea kalea gurutzatu behar izatea beste 4 oinezkoen pasabide zeharkatuz.

Gogoratu beharra daukagu, Tabiran, kirol gunea daukagula, eta egunero, batez ere, umeak pasatzen direla oinezkoen pasabide horietarik. Bizikleta erraila ere badaukagu eta ume, gazte eta ez hain gazteek erabiltzen dute.

Bestalde, Tabiran berdegune asko ditugu eta Arriluzea kaleko oinezkoen pasoak zeharkatzen ditugu bertaratzeko. Bestalde, Durangoko beste kale batzuk ere kotxez betetzeko arriskua dago, kale oso estuak hain zuzen ere. Ezin ahaztu dezakegu, udako igerilekuetara joateko ere bertatik pasatzen garela, eta orain, Gasteizbidea hartzen duten kotxe guztiak ere kale horretatik pasatuko direla. Esan beharrik ez dago: arriskua asko areagotzen da. Berandu baino lehen neurriak hartu behar ditugu konponbidea bilatzeko: ez da hain zaila. Proiektua egin duenak, Durango pixka bat ezagututa, ulertuko luke. Beraz, adjudikazioan aldaketa bat egin dezatela eskatzen dugu.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Anticipar que vamos a votar a favor basándonos en el incumplimiento que ha tenido la Diputación en cuanto al convenio, ya que iban a proponer varias reuniones entre los Servicios Técnicos de la Oficina Técnica del Ayuntamiento de Durango y de Diputación. Esta obra implica una zona de titularidad foral pero también una zona de titularidad municipal, ¿qué va a hacer el Ayuntamiento de Durango cuando soliciten el permiso de obras?

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: No podemos poner en tela de juicio que la entrada a Durango desde Tabira sea peligrosa: ahí están los datos de los accidentes. La ciudadanía lleva años a la espera de una solución. Y, al parecer, se plantea una solución en año de elecciones. Pero, ¿alguien lo ha analizado? Tengo mis dudas, y creemos que el remedio será peor que la enfermedad.

Somos muchos los y las conductoras que utilizamos la entrada de Gasteizbidea para acceder a Durango, y no tiene ningún sentido tener que cruzar la calle Arriluzea, pasar 4 pasos de cebra, llegar a una rotonda y volver a cruzar la calle Arriluzea para volver a pasar 4 pasos de cebra.

No olvidemos que en Tabira se encuentra una zona deportiva, y que diariamente acuden a ella muchos niños y niñas, y que son ellos, sobre todo, quienes cruzan por los pasos de cebra. También está el carril bici, frecuentado por niños, jóvenes y no tan jóvenes.

Por otro lado, en Tabira hay muchas zonas verdes, y cruzamos los pasos de peatones de Arriluzea para acceder a esos espacios. Además, tenemos el riesgo de que se llenen de coches otras calles de Durango; calles muy estrechas. Y, no olvidemos, que acudimos a las piscinas de verano por esa calle, y ahora, también pasarán por ahí todos los vehículos que iban por la calle Gasteizbidea. No hace falta decirlo: el riesgo se intensifica. Tenemos que tomar medidas antes que sea demasiado tarde: no es tan difícil. Si la persona que ha diseñado el proyecto conoce un poco Durango, lo comprendería. Por lo tanto, pedimos que se haga un cambio en la adjudicación.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Bilduko Bozeramaileak esan du ez dakitela aldaketa horiek egoera okertuko duten edo ez; eta guk ere ez dakigu. Durangoren segurtasuna gure ardura ere bada eta Durangoren eskumenak gureak dira baita ere. Eta gobernu honek, hemen zein eskumenik izan ez duen lekuetan, defenditu izan ditu Durangoren eskumena eta eskubideak, eta horretan jarraituko dugu beti egin izan dugun moduan.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: La Portavoz de Bildu ha manifestado que no saben si esos cambios empeorarán la situación, y nosotros tampoco lo sabemos. La seguridad de Durango es también responsabilidad nuestra, y las competencias de Durango también son nuestras. Además, este Gobierno ha defendido las competencias y los derechos de Durango tanto si tenía jurisdicción como si no, y continuaremos así, como siempre los hemos hecho.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE)**: Ez dugu nahi, inola ere, obra atzeratzea. Baina Aldundiak Gasteizbideako sarrera kenduko du, alegia, trafiko gutxiko kalea, horretarako prestatua, urbanizatua eta zabala, eta gainera, erdigunean sartzeko ezin hobea dena. Aukera hori ez dugu ulertzen ez guk, ez teknikariek. Udal honetako teknikariek esan dutenez, ez dute segurtasunaren argudioa ulertzen; aldiz, Aldundiak egingo duena zera da: gure udalerrira ekarri bere eskumenen pean dagoen puntu beltz bat. Diru publikoarekin obra bat egingo da, eta biribilgunea txarto egin zutenetik 20 urte pasa direnean, berriro gauzak txarto egin nahi dituzte. Gure ustez, funtsezkoa da Aldundiak udalerriei galdetzea.

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE)**: En ningún caso queremos que se retrase la obra. Lo que hace la Diputación es eliminar la entrada a Gasteizbidea, una calle de baja densidad preparada y urbanizada, amplia, y que es perfecta para el acceso al centro. Es una opción que no entendemos ni nosotros ni los técnicos. Los técnicos de este Ayuntamiento han dicho que no ven el argumento de la seguridad, al contrario, la Diputación lo que hace es, un punto negro de su carretera trasladárnosla a nuestro municipio. Se va a realizar una obra con dinero público y 20 años después de hacer mal una rotonda la vuelven a querer hacer mal. Nos parece fundamental que la Diputación consulte a los municipios.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Hemen errua ez da bakarrik diputazioarena, izan ere, gobernatzen omen duen taldeko bozeramaileak esan du "ez dakigu ona edo txarra izango den". Zelan da posible osoko bilkurara etortzea mugikortasun arazo baten inguruan ari garenean eta esatea ez dakiela ona edo txarra izango den? Ezin ahaztu dezakegu saihesbide horren aurrekari guztiak: arazoak, istripuak, e.a. Eta ez da bakarrik biribilgunearen kontua, zeren saihesbidea egin eta gero sarrera guztiak aldatu behar izan dira. Baina gobernatzen gaituztenak ez dakite "ona ala txarra izango den". Eta, zoritxarrez, ohituta gaude horrelako adierazpenak entzutera Osoko Bilkura honetan.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Aquí la responsabilidad no recae sólo sobre la Diputación, ya que la Portavoz del Equipo de Gobierno ha expresado "no sabemos si será para bien o para mal". ¿Cómo puede ser posible venir al pleno para tratar un problema de movilidad y expresar que no saben si será para bien o para mal? No podemos obviar los antecedentes de esa variante: los problemas, los accidentes, etc. Y no es únicamente el problema de la rotonda, puesto que, tras llevar a cabo la rotonda, se han tenido que modificar todas las entradas. Aún así, los que gobiernan no saben si "será para bien o para mal". Y, lamentablemente, en este pleno estamos acostumbrados a oír ese tipo de declaraciones.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Guk nahi duguna da, Aldundiak hitzemandakoa betetzea. Aldundiko teknikariak eta udaleko teknikariak biltzeko konpromisoa hartu zuten, eta ez dute bete. Berehala batu daitezela, berandu baino lehen.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Lo que se pretende por nuestra parte es que la Diputación cumpla lo prometido. Se comprometieron a reunirse los técnicos de Diputación con técnicos del Ayuntamiento y no lo han cumplido. Que se reúnan ya, antes de que sea tarde.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Hedabideetatik jakin dugu obra hau esleituta zegoela, eta benetan harritu gintuen Gasteizbideko zuzeneko sarrera kenduko zutela jakiteak. Proiektua egin duenaren azalpenak entzutea gustatuko litzaiguke, baina ez gatoz bat bide-segurtasunaren mesedetan egiten delako azalpen horrekin. Izan ere, pertsonak jartzen dira arriskuan: 300 metrotan 8 oinezkoen pasabide zeharkatzera behartzen gaituztelako, ez da ahaztu behar oinezkoen pasabideetan "oinezkoak" ibiltzen direla.

Bestalde, gobernu taldeak esan digunaren arabera, zuek ere hedabideetatik enteratu zarete adjudikazioaz. Ni Durangoko Gobernu taldekoa izango banintz eta Aldundian ere nire taldea dagoela kontuan izanda, zalantzarik ez izan albistea irakurri eta berehala telefono-dei bat egingo nukeela, bat, bi, hiru... edo behar den tokian plantatuko nintzateke azalpenak eskatzera.

Mozio hau konponbidearen hasiera besterik ez da izango, baina benetan segurtasunaren mesedetan lan egin nahi badugu, Gasteiz bideko sarrera mantentzea egokiena dela uste dugu, gainera posible izango litzateke. Guk alde bozkatuko dugu.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Ingeniaria omen den Aralarreko bozeramaileari erantzunez, esango diot ez dudaka esan ez dakidala ona edo txarra izango den, esan dudana da, Bilduk esan duen bezala, ez dakigula egoerak txarrera edo hobera egingo duen, azken baten, irizpiderik ez daukagulako. Ni ez naiz ingeniaria, Aralarrekoa bai omen da, eta berak badaki txarrera joango dela. Gu prest gaude Diputazioarekin hitz egiteko eta eskatu beharreko azalpenak eskatzeko.

Esan da, baita ere, hemen ez ditugula durangarren eskubideak defendatzen, ez dugula lanik egiten... eta hori esaten digu Durangoko udalera Osoko Bilkuretara baino etortzen den pertsona batek, jakina, Osoko Bilkuran entzungo dizkidazu gauza batzuk Osoko Bilkuretara bakarrik etortzen zarelako.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: Nos hemos enterado por los medios que la adjudicación estaba realizada, y nos sorprendió saber que suprimirían la entrada de Gasteizbidea. Nos gustaría escuchar las explicaciones de quien haya redactado el proyecto, pero no estamos de acuerdo con la argumentación de que se hace en aras de la seguridad vial, puesto que se pone en peligro la vida de las personas, visto que nos obligan a circular por una carretera donde, en 300 metros, cruzamos 8 pasos de peatones, por donde, obviamente, pasan los peatones.

Por otro lado, según nos ha comentado el Equipo de Gobierno, también ellos se han enterado de la adjudicación por los medios. Si yo fuese del Equipo de Gobierno de Durango, y teniendo en cuenta que en la Diputación también gobierna mi partido, no dudéis en que haría una llamada en el acto... Una, dos o tres... o me plantaría donde hiciera falta para pedir explicaciones.

Esta moción sólo será el primer paso hacia la solución, pero si realmente queremos trabajar por la seguridad, en nuestra opinión, lo más adecuado es mantener la entrada de Gasteizbidea, y además, sería posible. Nosotros votaremos a favor.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Respondiendo al Portavoz de Aralar, que por lo visto es ingeniero, debo decirle que no he dicho que no sepa si será para bien o para mal, sino que, como ha dicho Bildu, no sabemos si la situación empeorará o mejorará. Al fin y al cabo, porque no conocemos los criterios. No soy ingeniera, pero al parecer el Portavoz de Aralar sí lo es, y él si sabe que la situación empeorará. Nosotros estamos dispuestos a hablar con la Diputación y pedirles las explicaciones oportunas.

También se ha comentado que no defendemos los derechos de los y las duranguesas, que no trabajamos... Y eso nos lo reprocha una persona que sólo viene al Ayuntamiento de Durango a los plenos. Naturalmente, me oirá decir ciertas cosas en el pleno, porque únicamente viene a los plenos.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE)**: Kezkagarriena da obra hau argitaratu zela Hirigintzako batzordetik pasatu gabe. Administrazioen argitalpenei erreparatu behar ditugu gure herrian zer buruko den jakiteko. Kezkagarria baino kezkagarriagoa da guri ezer ez jakinaraztea, ez kontsultarik egitea. Izan ere, gure erantzukizuna da ahal denik eta hoberena egin dadin zaintzea, eta administrazioen artean zaintzen ibili behar izatea surrealista da. Eta, are larriagoa da EAJren mende dauden bi administraziok ez izatea komunikaziorik eta une oro elkarri trabak jartzen aritzea.

Eusko Jaurlaritzaren gauza bera gertatzen ari da. Duela bi aste, prentsagatik jakin genuen PERI-trenbideko garajeak botako zirela. Duela urtebete iragarri zuten geltoki zaharra eraitsiko zutela anbulatorio zaharreko kalea eta Trenbide kalea elkartzeko; orain ez, orain garajeetatik hasiko dira, eta hilabete barru esango dute ezetz...baina prentsaren bitartez jakingo dugu. Exijitzen dugun gauza bakarra da protokolo bat izatea, batzarrak egitea, jakitun egotea.

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE)**: Lo preocupante es que esta obra se publicó sin pasar por la Comisión de Urbanismo. Tenemos que estar pendientes de las publicaciones de las administraciones para saber lo que se va a ejecutar en nuestro pueblo. Que no se nos informe ni se nos consulte es más que preocupante porque es nuestra responsabilidad velar por que se intente hacer lo mejor posible, y tener que estar vigilantes entre administraciones es algo surrealista. Y es más preocupante aún que dos administraciones en manos del PNV no tengan comunicación y se estén poniendo trabas todo el día.

Con el Gobierno Vasco nos está pasando lo mismo, nos enteramos por la prensa hace una semana que en el PERI-Ferrocarril se van a tirar las cocheras. Hace un año que anunciaron que iban a tirar la estación vieja para unir la calle del ambulatorio antiguo con Trenbide kalea, ahora no, ahora se va a empezar por las cocheras y dentro de un mes nos enteraremos de que no... pero nos enteraremos por la prensa. Lo único que exigimos es un protocolo, unas reuniones, y que se nos informe.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMABI, 6 Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra, 2 Alderdi Popularra eta 2 Aralar.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DOCE, 6 de Bildu, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra, 2 del Partido Popular y 2 de Aralar.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 8 del Partido Nacionalista Vasco.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita.

**ZAZPI.- MARTXOKO OSOKO BILKURA EGUNA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Martxoko bilkuraren eguna martxoaren 31 da. Egun honetan Durangoko bonbardaketaren urteurrena oroitzen dugu. Egunean zehar hainbat ekitaldi daudenez, proposatu genuen Bozeramaileen Batzordean eta baita Ogasun Batzordean ere, gure ohiko osoko bilkura aurreko astera pasatzea, hain zuzen ere martxoaren 24ra pasatzea. Bozkatu egingo dugu

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, hurrengo osoko bilkura abenduaren 31an izan beharrean **martxoaren 24an** izatea onartu du.

**SIETE.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA FECHA DEL PLENO ORDINARIO DEL MES DE MARZO.**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: La fecha del pleno de marzo es el 31 de marzo, pero ese día conmemoramos el aniversario del bombardeo de Durango. Teniendo en cuenta que a lo largo del día se llevarán a cabo varios actos conmemorativos, propusimos, tanto en la Comisión de Hacienda como en la Junta de Portavoces, que la fecha de pleno se adelantara al 24 de marzo.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda adelantar la sesión plenaria ordinaria del mes de **Marzo** del día 31 al **24**.

**ZORTZI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

- **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Aurreko baten galdetu genuen baina berriz ere galdetuko dugu, 2010eko aurrekontuetan inbertsioen plan plurianualean bi inbertsio agertzen ziren: Urki-Hegoalde eta San Fausto; baina 2012 eta 2013an egondako luzapenetan ez ziren agertzen. Jakin nahi dugu ea nork hartu duen erabakia 2012 eta 2013ko luzapenetan inbertsio horiek ez sartzeko eta zergatik hartu den erabaki hori eta zeintzuk diren ondorioak.

  Bigarren galdera: hemen onartu zen kanpoko aholkularitza bati eskatzea 2013ko Kontu Orokorra ondo eginda zegoen ala ez aztertzea; baina Eusko Alderdi Jeltzaleak erabaki zuen Diputazioari eskatzea. Gerora ikusi izan dugu diputazioak jaso duela espedientea eta esan digu, zehatz-mehatz azaltzeko, zer eskatzen ari garen. Uste dut osoko bilkuran argi geratu zela zer zen nahi genuena. Eta orain jakin nahi dugu udalak erantzun dion diputazioak egindako eskariari eta zein zentzutan erantzun dion, alegia, zer eskatu dion Diputazioari berraztertzeko.

**OCHO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Hemos realizado la misma pregunta en alguna otra ocasión, pero la vamos a realizar. En los presupuestos de 2010 aparecía dos inversiones incluidas en el plan de inversiones plurianual: Urki-Hegoalde y San Fausto; pero en las prorrogas de 2012 y 2013 no aparecen. Queremos saber quién y por qué ha decidido que dichas inversiones no se incluyan en las prorrogas de 2012 y 2013 y cuáles son las consecuencias que ello acarrea.

  Segunda pregunta: se acordó en pleno solicitar a una asesoría externa que analizase las cuentas generales de 2013 para ver si estaban bien realizadas; pero el PNV decidió que se solicitara el estudio a Diputación. Posteriormente hemos sabido que Diputación recibió el expediente y que nos ha solicitado que expliquemos con todo detalle que es lo que les demandamos. Creo que quedo bien claro en Pleno que es lo que queremos. Ahora queremos saber si el Ayuntamiento ha respondido a la solicitud de Diputación, y, si lo ha hecho, qué es lo ha respondido, es decir, que es lo qué ha solicitado a Diputación que estudie.

- **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE)**: Eskatzen dugu Eusko Jaurlaritzari galdetzea zergatik ez den oraindik hasi geltoki zaharra behera botatzean eta Trenbide kalea urbanizatzen. Halaber, euren plangintzaren berri eman diezagutela eskatzen dugu. Ez da bidezkoa prentsaren bidez ezagutu izana. Eta azalpenak eskatzen ditugu, Urkullu bi urtez egon ondoren gobernu-lanetan, ez dutelako ezer egin. Orain arte egindako gauza bakarra, geltokirako sarbidea, ekimen pribatuari esker egin da. Oinezkoentzako pasabidea zabaldu baino ez da egin, eta hori herritarren presioagatik izan da.

- **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Udalaren egoera ekonomikoa azaltzeko jarduera publiko batzuk egitea eskatzen dugu.

  Durango-Gasteiz autobusaren inguruan: orain dela hilabete batzuk bilera bat egin zen eta eskatzen dugu horrelako beste bat deitzea ea irtenbidea topatzen dugun lehenbailehen.

  BBKrekiko dauzkagun harremanak zelan dauden jakin nahi dugu. BBKrekin dagoen harremana bertan behera uztea eta beste banketxe batzuekin lanean hastea eskatzen dugu.

- Alkatesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Alderdi Sozialistak esandakoaren inguruan, guk azalpenak gobernu talde moduan eskatu izan ditugu, erreparatu barik nor dagoen Eusko Jaurlaritzan. Beti eskatu izan ditugu eta aurrerantzean ere eskatuko ditugu.

- Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE)**: Pedimos que se consulte al Gobierno Vasco por qué no se ha comenzado con la demolición de la antigua estación y con la urbanización de la calle Trenbide kalea, y que se nos informe de la planificación que tiene. No es justo que nos enteremos por la prensa. Y que se pidan explicaciones porque después de dos años de gobierno de Urkullu no se ha hecho nada, la única iniciativa que se ha hecho, el acceso a la estación, ha sido por iniciativa privada. Lo único que se ha hecho es abrir el paso de los peatones y ello por presión de la ciudadanía.

- Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: Pedimos que se lleven a cabo unas actividades públicas para explicar la realidad de la situación económica del Ayuntamiento.

  Autobús Durango-Gasteiz: hace unos meses se llevó a cabo una reunión, y solicitamos que se convoque otra para buscar una solución al problema cuanto antes.

  ¿Cuáles son las relaciones que mantenemos con la BBK? Pedimos que se cancele la relación que mantenemos con la BBK y que empecemos a trabajar con otras entidades bancarias.

- Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: En relación a lo solicitado por el Partido Socialista, nosotros las explicaciones las pedimos como Equipo de Gobierno, sin reparar en quién está en el Gobierno Vasco. Siempre lo hemos hecho así y así lo haremos también en el futuro.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:00ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:00 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.